

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak turismoko baliabide irisgarriei buruzko gida bat izango du sarean desgaitasuna duten pertsonentzat

Merkataritza eta Turismo Zuzendaritza Nagusiak jardunaldi bat antolatu du turismo-sektorea ikuspegi horren gainean sentsibilizatzeko eta informatzeko

Osteguna, 2016.eko azaroak 10

Nafarroako Merkataritza eta Turismo Zuzendaritza Nagusiak, Equalitas Vitae eta Desgaitasunaren bat duten Pertsonen Erakunde Ordezkarien Nafarroako Batzordearekin batera, "Nafarroa Irisgarria" abian jarriko du; 'sare'-an dagoen gida bat da, eta Foru Komunitateko turismo-baliabideen irisgarritasun-baldintzei buruzko informazioa emango du: ostatuak, museoak, tabernak eta jatetxeak, kultur ondasunak...

"Nafarroa Irisgarria" Nafarroako Gobernuak antolatutako turismo irisgarri eta inklusiboari buruzko prestakuntza-jardunaldi batean aurkeztu da, ikuspegi hori kudeaketan erabiltzeko beharrezko gainean eragileak kontzientziatzeko asmoz (birgaitzea, eraikuntzak, zerbitzuak...).

Durante la sesión, se han difundido las principales barreras y las alternativas para superarlas.

Jardunaldian, dauden oztopo nagusien berri eman da eta haiek gainditzeko zer aukera dauden. Eta negoziotarako duen errentagarritasuna azpimarratu da; izan ere, funtzionamenduko behar bereziak dituzten pertsonentzat edo haien laguntzaileentzat (senideak, taldeak...), informazio erabakigarria da turismorako toki bat, ostatu bat edo edozein jarduera hautatzeko orduan.

"Nafarroa Irisgarria" abian jartzeko, Turismoak aurrez beste ekintza batzuk egingo ditu. Informazio eta sentsibilizazioko jardunaldi horren ondoren, "autoebaluazio"-ko etapa bat etorriko da, eta bertan eragile interesdunek beraien negozioen irisgarritasuna neurtu ahaliko dute. Jarraian, aholkularitza espezializatua eskainiko zaie.

Informazioa jaso eta egiaztatu ondoren, ezaugarriak "Nafarroa Irisgarria" gidan zabalduko dira www.turismo.navarra.es webgunearen bidez, turismo irisgarriko plataforma espezializatuetan (www.equalitasvitae.com) eta "Turismo Irisgarria by Equalitas" mugikorretarako aplikazioan.

Ekimenak desgaitasunak dituzten pertsoneri egingo die mesede, gurpildun aukietan daudenei, adinekoei edo aldi betarako mugikortasuna murriztuta dutenei, gorrei...

Eta negozioak sarean ikusgaitasuna izango du.

www.equalitasvitae.com webgunea Espainiako turismo irigarria sustatzeko erreferentziazko ataria da: hilean 400.000 orrialde baino gehiago ikusten dira, hilean 800.000 sarrera, 1.200 saio egunean, ia 11.000 jarraitzaile Facebook-en, 2.500 jarraitzailetik gora Twitter-en eta lehen postuetan dago gako-hitzak erabiltzen dituzten bilatzaile guztietan: "hotel irigarriak", "egokitutako hotelak", "gurpil aukietan bidaiatzea" eta beste batzuk, adibidez.

Biztanleriaren % 40

Nafarroako Filmotekan egindako jardunaldian 75 eragilek parte hartu dute. Honako hauetako ordezkarietat izan da: ostatuak, jatetxeak, tabernak, turismoko jardueren eta zerbitzuen enpresak, turismo-gidak, ekitaldiak antolatzen dituzten enpresak, ibilgailuak alokatzen dituzten enpresak, turismo-informazioko bulegoak eta bidaiia-agentziak, besteak beste.

"Biztanleen % 40k produktu, zerbitzu eta ingurune irigarriak behar ditu. Nafarroa toki erakargarriagoa, lagunkoiagoa eta inklusiboago bihurtu nahi dugu guztiengan pentsatuz", azpimarratu du jardunaldiaren inaugurazioan Merkataritza eta Turismoko zuzendari nagusi Maitena Ezkutarik; azken horrek aipatu du "Nafarroa Irigarria" gidarekin "errazagoa izango dela gure lurraldeko toki irigarriak ezagutzea", eta "kontsumitzaileari mesede egiteaz gain, irigarritasuna hobetzearen aldeko apustua egin duten establezimenduei ere egingo zaiela".

Hitzaldiak honako hauek eman dituzte: Equalitas Vitae turismo irigarriko kontsultora espezializatuko zuzendari Izaskun Benitok; Desgaitasunaren bat duten Pertsonen Erakunde Ordezkarien Nafarroako Batzordeko (CERMIN) teknikari Nerea Aranak; eta www.marketinginclusivo.com blogaren sortzaile eta kontsultore Luis Casadok.